

## Aurkezpena

Ikasmina: Herriz-Herri ekimenaren helburua Tolosaldeako herritarren artean ikasmina piztea eta ikasten jarraitzea bultzatzea da. Ekimenak ez du kokapen fisiko finko bat, herri bakoitzeko baliabide publikoei esker, herriz-herriko “bulego ibiltari”-a eskainiko du. Helburua zerbitzua herritarrengana gerturatzea da, ekimena zuzenean herritarren testuinguru sozialera bertaratzea.

Bulego ibiltarira gerturatzen diren herritarrei, euren prestakuntza beharren analisia egiten lagunduko zaie, eta eskualdeko prestakuntza ekintzen informazioa emango zaie. Ikastea bere zentzurik zabalenean ulertzen dugunez (ikasketa formalak, ez formalak eta informalak), zerbitzu hau **herritar guztiei zuzendua** dago, edozein adin edo lan egoeratako jendeari.

Ekimen honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko Eta Turismoko Departamentuak laguntza du, eta **herritarrentzat doako** da.

Abatzisketan bulego ibiltaria data honetan izango da:

- Maiatzak 26, osteguna, arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara
- Lekua: Abatzisketako Udaletxeko Areto Nagusian.

Informazio gehiagorako <http://ikasmina.tolosaldea.com> webgunea kontsultatu dezakezue.

Tolosan, 2016ko maiatzaren 18an